


## Askotariko Zerbitzuen sektoreko negozio-zifra 7.730 milioi eurokoa izan zen 2020an, hau da, 2019an baino % 11,8 txikiagoa

*Kultura-jarduerak (-% 49,7) eta Ikus-entzunezko jarduerak, zinema, irratia eta telebista (-% 27,9) izan dira negozio-zifran COVID-19aren eraginik handiena jasan dutenak*

2020an (hau da, COVID-19aren pandemia hasi zen eta jarduera ekonomikoan neurririk murritzailleenak aplikatu ziren urtean), **Askotariko Zerbitzuen sektoreko** establezimenduen negozio-zifra 7.730 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 11,8 txikiagoa, Eustatek landutako datuen arabera.

### Euskal AEko Askotariko zerbitzuen negozio zifra sektorearen arabera. 2020

#### Ehunekoa




Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Establezimenduen kopuruak, aldiz, gora egin zuen zertxobait (% 2), eta 23.537 establezimendura iritsi zen. Langileen kopuruak, bestalde, % 1,5eko igoera izan zuen, eta 81.370 pertsonak jardun zuten sektore horretan (2020. urteko Euskal AEko ekonomiako langile guztien % 8,5).

## Euskal AEko Askotariko zerbitzuen langileen banaketa sektorearen arabera. 2020

### Ehunekoa



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Askotariko Zerbitzuetako establezimenduek sortutako balio erantsia 4.087 milioi eurora iritsi zen, eta, beraz, % 7,9 beherakada izan zuen.

### Dibisioen analisisia

**Garraioari lotutako jarduerak eta Informatika portaera guztiz positiboa agertu zuten adar bakarrak izan ziren, eta gorakada aipagarriak izan zituzten enpleguan eta salmentetan**

Askotariko Zerbitzuen barruan, oso jarduerak multzo heterogeneoa biltzen da. Salmentabolumenari dagokionez duten garrantziagatik, **Garraioari lotutako jarduerak** eta **Informatika** nabarmentzen dira. Lehenak 2.932 milioi euro fakturatu zituen (sektore horretako guztizkoaren % 37,9), eta bigarrenak, berriz, 1.446 milioi euro (% 18,7). Bien artean, guztizko negozio-zifraren % 56,6 bildu zuten, baina Askotariko Zerbitzuen sektoreko enpleguaren % 33,8ra eta establezimendu-bolumenaren % 13,5era baino ez ziren iritsi.

2020an, Garraioari lotutako jardueretan 11.704 pertsonak jardun zuten 1.063 establezimendutan, eta Informatikan, berriz, 15.791 pertsonak jardun zuten 2.118 establezimendutan. Bi dibisio horiek, gainera, 2019ko salmenta-zifrari eutsi dioten (eta zifra horiek zertxobait hobetu dituzten) bakarrak izan dira (% 0,8ko igoera izan dute biek). Horrez gain, Garraioari lotutako jardueretan, enpleguak % 7,3ko igoera izan du, eta Informatikan, berriz, % 3,3ko igoera. Halaber, gora egin du establezimenduen kopuruak (% 0,7 eta % 2,5, hurrenez hurren).

Haien atzetik, eta negozio-zifrari dagokionez, baina urruti samar, **Kirol- eta aisialdi-jarduerak** dibisioa kokatu da. Dibisio horretan, 701 milioi euro fakturatu ziren 2020an, eta

10.335 pertsonak jardun zuten 1.709 establezimendutan. 2019. urtearekin alderatuta, salmentek % 16,1eko beherakada izan zuten, eta dibisioak eutsi egin zion enpleguari (-% 0,3) eta establezimendu kopuruari (+% 0,5).

**Higiezin jarduerak** dibisioak aurrekoaren antzeko portaera izan du negozio-zifrar dagokionez, 629,5 milioi eurekin, baina desberdina enpleguari dagokionez (5.229 pertsona, hau da, erdiak gutxi gorabehera) eta establezimenduei dagokienez (3.092). 2020. urtean, negozio-zifrak % 8,2ko beherakada izan du, eta enpleguak eta establezimenduen kopuruak, berriz, gora egin dute (% 3,1 eta % 4,6, hurrenez hurren).

Dibisio horren atzetik, **Kultura-jarduerak** kokatu dira. Zalantzarik gabe, jarduera hauek izan dute beherakadarik handiena sektorean. Izan ere, fakturazioa % 49,7 txikiagoa izan da. 2019an, 1.069 milioi euro fakturatu ziren, eta 2020an, berriz, 538 milioi euro, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko ezarritako neurri murriztaileen ondorioz. Hala ere, eragina oso txikia izan da enpleguan (-% 0,9).

**Beste zerbitzu pertsonal batzuk** epigrafearen barruan, askotariko jarduerak biltzen dira, hala nola lle-apainketa eta beste edergintza-tratamendu batzuk, Jantzien ikusketa eta garbiketa eta Mantentze fisikorako jarduerak. Kultura-jardueren antzera, jarduera horiek ere beherakada handia izan dute negozio-zifran (-% 27,1), eta fakturazioa 393 milioi eurotan geratu da. Enpleguak beherakada txikia izan du (-% 1,2), eta establezimenduen kopuruak, berriz, % 3,1eko igoera.

Era berean, **Finantza-zerbitzuen jarduera osagarriek** portaera negatiboa izan dute fakturazioan, baina beherakada % 6,3koa baino ez da izan. Horrez gain, enpleguak % 1,9ko beherakada izan du, eta establezimenduen kopuruak % 2,0koa.

## Euskal AEko askotariko zerbitzuen sektoreko aldagai nagusiak, jarduera-taldearen arabera (milaka euro). 2020

|                                               | Establezimenduak |                | Landun-kopurua |                | Negozio-zifren zenbatekoa |                | Pertsonal gastuak |                |
|-----------------------------------------------|------------------|----------------|----------------|----------------|---------------------------|----------------|-------------------|----------------|
|                                               | Balioa           | Aldakuntza (%) | Balioa         | Aldakuntza (%) | Balioa                    | Aldakuntza (%) | Balioa            | Aldakuntza (%) |
| Garraioarekin uztartutako jarduerak           | 1.063            | 0,7            | 11.704         | 7,3            | 2.931.670                 | 0,8            | 584.372           | 13,6           |
| Posta zerbitzuak                              | 1.110            | 10,1           | 4.781          | 5,2            | 190.869                   | -25,9          | 107.208           | -8,1           |
| Argitalpenak                                  | 357              | -4,8           | 1.736          | -6,2           | 176.129                   | -17,6          | 66.930            | -9,2           |
| Ikusentzunezkoak, zinea, irratia, telebista   | 783              | 0,5            | 3.290          | 0,6            | 153.288                   | -27,9          | 129.269           | -1,5           |
| Informatika                                   | 2.118            | 2,5            | 15.791         | 3,3            | 1.446.248                 | 0,8            | 672.837           | 3,0            |
| Finantza-laguntzaileak                        | 2.571            | -2,0           | 4.806          | -1,9           | 403.570                   | -6,3           | 152.979           | -10,8          |
| Higiezin jarduerak                            | 3.092            | 4,6            | 5.229          | 3,1            | 629.483                   | -8,2           | 155.928           | -6,1           |
| Kultur jarduerak                              | 2.665            | 2,2            | 7.324          | -0,9           | 537.885                   | -49,7          | 183.402           | -21,8          |
| Kirol eta aisialdi jarduerak                  | 1.709            | 0,5            | 10.335         | -0,3           | 700.912                   | -16,1          | 485.576           | 5,5            |
| Ordenagailuen eta beste artikuluen konponketa | 1.110            | -2,9           | 2.322          | -1,6           | 167.015                   | -4,0           | 48.435            | -14,2          |
| Beste zerbitzu pertsonal batzuk               | 6.959            | 3,1            | 14.052         | -1,2           | 392.850                   | -27,1          | 147.002           | -41,7          |

Data 2022ko Abuztuaren 4a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

(1) 2020ko Zerbitzuen Inkestako askotariko zerbitzuen atala jarduera bakar edo nagusi gisa EJSN-2009ren arabera honako jarduera-dibisio hauetako batean bildutako jarduera bat duten establezimenduez osatuta dago: 52, 53, 58, 59, 60, 62, 63, 66, 68, 90, 91, 92, 93, 95 eta 96.

Gainerako jarduerak 200 milioi eurotik beherako fakturazioa izan dute 2020an, eta beherakadak izan dituzte fakturazioan.

Haien artean, **Ikus-entzunezkoak, zinema, irratia eta telebista** dibisioak % 27,9ko beherakada izan du negozio-zifran. Hala ere, enpleguak % 0,6ko igoera izan du, eta establezimenduen kopuruak % 0,5ekoa. Bestalde, **Argitalpenak** dibisioak % 17,6ko beherakada izan du fakturazioan, % 6,2koa enpleguan eta % 4,8koa establezimenduen kopuruan. Era berean, **Posta-zerbitzuek** % 25,9eko beherakada izan dute fakturazioan. Hala ere, langileen kopuruak % 5,2ko igoera izan du, eta establezimenduenak, berriz, % 10,1ekoa. Azkenik, **Ordenagailuen eta beste artikulu batzuen konponketak** % 4ko beherakada izan du negozio-zifran, % 1,6koa langileen kopuruan eta % 2,9koa establezimenduen kopuruan.

### ***Lurraldearen arabera*** **analisia**

#### ***Askotariko Zerbitzuen sektoreko enpleguak gora egin du Bizkaian (% 2,3) eta Araban (% 1,9), eta ia berdin jarraitu du Gipuzkoan (-% 0,2)***

Lurralde-banaketari dagokionez, eta establezimenduen kopurua kontuan hartuta, establezimenduen erdiak baino gehiago (12.857) Bizkaian daude, 7.710 Gipuzkoan eta 3.000 Araban. Zifra erlatiboetan, % 54,5, % 32,8 eta % 12,7 dira, hurrenez hurren.

Hiru lurraldeetan, ikuspuntu kuantitatibotik, jarduera nagusia Beste zerbitzu pertsonal batzuk izan da. Jarduera horretan, 3.746 establezimendu zeuden Bizkaian (lurraldeko establezimenduen % 29,2), 2.340 Gipuzkoan (% 30,4) eta 873 Araban (% 29,1).

Jarduera guztiak kontuan hartuta, hiru lurraldeetan gora egin du establezimenduen kopuruak 2019. urtearekin alderatuta (% 3ko igoera Araban, % 2,4koa Gipuzkoan, eta % 1,6koa Bizkaian).

Enpleguaren kasuan, gure Autonomia Erkidegoko Askotariko zerbitzuen sektoreko enplegu guztien lurralde-banaketa honako hau izan da 2020an: % 56,5 Bizkaian, % 29,1 Gipuzkoan eta % 14,4 Araban. Horrela, beraz, 45.976 langile zeuden Bizkaian sektore horretan, 23.674 Gipuzkoan eta 11.720 Araban.

Lurralde bakoitzeko jarduerarik esanguratsuenak honako hauek izan dira: Informatika Bizkaian (% 22,8), Beste zerbitzu pertsonal batzuk Gipuzkoan (% 19,3) eta Garraioari lotutako jarduerak Araban (% 19,3). Enplegu-bolumenari dagokionez, honako jarduera hauek ere azpimarra daitezke: Informatika Araban (% 17,3), Beste zerbitzu pertsonal batzuk Bizkaian (% 16,6) eta Kirol- eta aisialdi-jarduerak Gipuzkoan (% 14,8).

Informazioa eskaintzen duen azken urtean, enpleguaren bilakaera positiboa izan da Bizkaian (% 2,3ko igoera) eta Araban (% 1,9ko igoera). Gipuzkoak, berriz, % 0,2ko beherakada txikia izan du.

Bestalde, negozio-zifraren bilakaera desberdina izan da enpleguaren eta establezimenduen bilakaerarekin alderatuta. Izan ere, negatiboa izan da hiru lurraldeetan, eta, bereziki, Gipuzkoan. Lurralde horretan, jarduera-sektore horren fakturazioaren beherakada lauhun milioi eurotik gorakoa izan da 2020an (hau da, 2019koa baino % 17,2 txikiagoa). Araban eta

Bizkaian ere, beherakada handia izan da (-% 11,3 eta -% 9, hurrenez hurren). Beherakada horien ondorioz, salmentak honela geratu dira: 4.504 milioi euro Bizkaian, 2.140 milioi euro Gipuzkoan eta 1.086 milioi euro Araban.

## Euskal AEko askotariko zerbitzuen sektoreko aldagai nagusiak, lurralde historikoaren arabera (milaka euro). 2020



|                             | Euskal AE |                | Araba/Álava |                | Bizkaia   |                | Gipuzkoa  |                |
|-----------------------------|-----------|----------------|-------------|----------------|-----------|----------------|-----------|----------------|
|                             | Balioa    | Aldakuntza (%) | Balioa      | Aldakuntza (%) | Balioa    | Aldakuntza (%) | Balioa    | Aldakuntza (%) |
| Establezimenduak (kopurua)  | 23.537    | 2,0            | 3.000       | 3,0            | 12.827    | 1,6            | 7.710     | 2,4            |
| Langile okupatuak (kopurua) | 81.370    | 1,5            | 11.720      | 1,9            | 45.976    | 2,3            | 23.674    | -0,2           |
| Negozio kopurua             | 7.729.919 | -11,8          | 1.085.826   | -11,3          | 4.503.876 | -9,0           | 2.140.217 | -17,2          |
| Homidurak                   | 2.671.524 | -9,8           | 378.958     | -0,7           | 1.561.848 | -5,8           | 730.718   | -20,7          |
| Pertsonal gastuak           | 2.733.938 | -3,4           | 392.487     | -3,9           | 1.558.974 | -1,4           | 782.477   | -7,0           |

Data 2022ko Abuztuaren 4a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Langile-gastuek ere beherakadak izan dituzte, baina ez negozio-zifraren kasuan bezain handiak. Euskal AEn, oro har, beherakada % 3,4ra iritsi da. Zehazki, Gipuzkoan % 7ra iritsi da, Araban % 3,9ra eta Bizkaian % 1,4ra.

### Enplegu-mailaren araberako analisia

**Establezimenduen tamainaren** analisiak, enplegua kontuan hartuta, informazio gehigarria ematen du.

Lehenik eta behin, mikroenpresek (hots, 10 enplegu baino gutxiagoko establezimenduek) establezimenduen % 95 eta langile guztien % 48,2 biltzen dituzte, eta sektoreko fakturazioaren % 36,5 sortzen dute.

Enpresa txikiek (10-49 enplegu dituztenek) sektoreko establezimenduen % 4,2, baina enpleguen % 24,5 biltzen dituzte, eta 2020an guztizkoaren % 30,2 fakturatu zuten. Azkenik, 50 enplegu baino gehiagoko enpresak establezimenduen % 0,7 baino ez dira, enplegu guztien % 27,3 biltzen dituzte eta guztizkoaren % 33,3 fakturatu zuten.

2019tik 2020rako bilakaera desberdina izan da 50 langile baino gehiago dituzten enpresentzat eta gainerakoentzat. Adibidez, mikroenpresen kasuan (10 pertsona baino gutxiagokoetan), establezimenduen kopuruak % 2,2ko igoera izan du, enplegu kopuruak % 0,8koa, eta fakturazioak % 19,2ko beherakada. Era berean, 10-49 langile dituzten enpresetan, establezimenduek eta enpleguek gora egin dute (% 0,8 eta % 1,4, hurrenez hurren), eta negozio-zifrak, berriz, behera (% 14). 50 enplegu eta gehiago dituzten enpresetan, ordea, establezimenduen kopuruak behera egin du % 3,9ko proportzioan, baina enplegu kopuruak % 2,8ko igoera izan du, eta fakturazioak % 0,8koa.

### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62